

## ECOPLASTIC

**Ecoplastic** gure proiektuaren izena da, **plastikoaren birziklapena** bultzatzean datza, gure ustez, arazo larri bat bilakatu delako gure gizartean horrela jarraitzen badugu. Metodo edo prozesu hau teknologia berriak erabilia jarriko da martxan, hau da, aplikazio digital baten bitartez aurrera eramango da (“Ecoplastic” aplikazioaren izena). Durangon kokaturiko zaborrontzi guztietan kode bat egongo da ezarrita, honen helburua da norbait plastikoa zaborrean sartzekoan kodea dagoen tapa zabaltzea eta bertatik herritarrak bere mobilarekin aplikazioaren bitartez kode hori eskaneatzea. Gero eta gehiago birziklatuz, gero eta puntu gehiago irabaziko dituzte aplikazioan. Hilean, puntu gehienak dituen herritarrak, abantaila ezberdinak lortuko dituzte atal publikoetan.

Batutako plastikoak, material hau erabiltzen dituzten enpresei salduko genizkion, adibidez, plastiko poltsak sortzen dituztenei, horrela, plastiko berria sortu beharrean, guk bildutakoa berrerabili dezakete.

